

Enda txikien askatasunaren giltza

LATXAGA.

Orain dela oso gutxi enda txikietan askatasunaren giltza arkitu nuen, korapillo baten bukaera. San Lukas'en 15'garren atalan daukagu giltza nagusi bat oso baldintza negargarrian edo negargarrietan ikusten duten beren bizitzaren egoeran. «Seme ondat allearen eredia». Jesus'ek oso eredu zalla eskuertzen digu irtenbidea bilatzea zoriona ematen du.

Arkitzen dugula orren esanaia, malla eder batera iristen gera.

Jesus'ek esaten digu aita on batek bi seme ditula, bat zarrena etxezalea aitarekin beti dagona eta bestea, seme gaztena. Beste onek ontasun den denak ondatzen ditu, ume galdu bat bezala dabil. Aita on orrek seme jatorrarekin baño askoz geiago egiten du seme gaztena onekin. Seme zarrenak orikusten dula asko asanatzan da aitarekin.

Aitaren erantzuna oso garbia ta soilla da: seme gaztearekin seme zarrarekin baño askoz geiago egin du, bearra aundiago zegoelako. Berak egindakoa ez dago oker, 9 oso bearrezkoa baizik.

Aita onek seme gaztea ortxen dula zer egin dun bi seme oiekin ez dago oker, Oso interesgarria bazik. Ez ditu bi semeak lana berdiñean jartzen, ez gutxi agorik ere.

Biyeke lagundu nai ditu... Aita

on zar onek ez ditu bi gazten indarrak neurtu nai: seme gaztenak aita orri oso lan aundiak ematen dizkio eta seme ori artegian sartzeak asko kosta zaio; seme zarra baño askoz geiago. Aitaon orrek ori egiten du seme galdua, benetan maite dulako. Zenbat kosta zaion ez du begiratzeko.

Beste malla batean gauza berdiña gertatzen zaio eta izkuntza txikiekin berdin.

Enda txikiak eta izkuntza ezberdiñen talde txikiak, aurrera atera nai ba dute, beste enda aziak baño askoz geiago kostatuko dira aurrera ateratzen.

Enda txikiak lagundu nai ba ditugu lan geiago egin bearko dugu, geiako kostatuko zaizkigu izkuntza indartsuak baño. Or ez dago erre egingo degun ametsik.

Ilñolaz ere ezin dugu pentsa arregatik ez dagola gaizki nazioarte aundietan, aurrerapeña aundiak ematea enda txikiei; batez ere txiki ei: Izkuntza aundien baldintza berdiñetan ezin dira lanean ikusi. Beti ta beti izkuntza aundiak jangoluke izkuntza talde txikiak. Maitasunak agintzen du aiña lagundu bear taldea ta izkuntz txikiek.

Ortan neurrik ez izan. Arrai aundia ez da egiña arrai txikia jateko ezberdiñaren itxurari legiratzuz, baizik gauzen ezberdintasunak dana obeto ikusteko, eginak daude.


Ezkerrak, bizitzan zehar

JULIAN BEREZIARTUA.

Ezkerreko oina besoa, eskuinekoa baino trebetasun handiagoz erabiltzen duena, ezkerre dela esaten dugu. Ez luke arazo izan behar baina, hasi eskolako aulkitik eta etxeko ateraino, dena eskuineko oina eta besoa erabiltzen dutenentzat pentsatuta egiten dituzte. Dudarik gabe, ezkerre izatea, mendeabaldeko kultura behintzat, eragozpen handia da. Arazo honetaz ez da inor arduratzen; hori dela eta, eskuinen gizartera egokitu behar izaten dute. Hala ere ezin dugu ahaztu Arkuko Joana edo Migel Angel Buonaroti bezalako pertsonaia ospetsuak ezkerre zirela. Fidel Castro eta Clinton politikoak ere ezkerre dira.

Oraingoan, ezkerre edo eskuineko izatearen arazoia agertzen duen teoria bat mantentzen dute: gorputzaren ezker aldeko kontrolatzen duen burmuinaren eskuin aldeko gehiago garatu delako izaten omen da; eskuinen kasuan alderantziz.

Nire iritziz, ezkerre setatsua eta kementsuak dira; gizarateak ipini dizkien oztopoak gaindituz, iseka guztiak jasaten dituzte eta beren bizimodua lantzen dute; askotan, gainera, abantaila guztiak dituztenen aurretik ibiltzen dira. Gogorrek gara gizakiok, eskuinari esku noblea deitzen diogunean. Ezkerre izatea edo «manzinismoa» ez da egoerarik onena, giro honetan aurrera egiteko. Konturatu gaitezen, haur ezkerrei, zailtasunez betetako bizimodua eratzen diegula, mintzaira arazoak sortarazten diegula (hizmoteltasuna) eta orientatzeko oztopoak ipini (zailtzak izaten dituzte mendi bat eskuin aldera edo ezker aldera dagoen jakiteko). Bada or-



dua zenbait teori zahar alde batera uzteko eta ezkerrei egin diegunagatik barkamena eskatzeko. Errespetatu dezagun berezko trebetasuna.

Gorputzaren ezker aldeko hobeto erabiltzen dutenen kopuru %10 gehiago dela uste da. Niri ez zait arraoa iruditzen, sarritan, ezkerre argiagok, trebeagoak, garatuagoak eta baita onberagoak ere izatea; denaren eta denen aurka borrokatu behar izan baitute.

Kirurgilari maisu handi bat izan nuen ezkerre zena. Bere laguntzaile bezala aritzen nintzen, gorriak ikusten nituen; nik neure erara prestatzen nuen kirugarako gunea eta hark, bat-batean, beste era batera egiten zuen ebakuntza. Eskemak zeharo hausten zizkidan eta nik egokitu behar izaten nuen bere erara. Benetan gizon trebea zen, bi eskuak oso ondo maneiatzen zituen eta beti harritu izan ninduen eskuetako zuten erraztasunak; zailtzarik

gabe, buruko argitasunaren eragina zen. Urte horietan sortu zitzaidan nire barnean ezkerrentzako dudaren mirespena eta esker ona eta horregatik, gaur, beraien alde egin nahi izan dut.

Harritu nauena zera izan da: eskerrak, eskuinak baino 5-10 urte gutxiago bizitzen direla irakurtzea. Dudarik gabe estatistika kori ez da betetzen inola ere Euskal Herrian.

Kirol mota batzutan, pelota eta boxeoen adibidez, beldurra diote ezkerrei, ustekabeko kolpeak ematen dituztelako. Garuneko «aginduen mahaian», eskuinek garatu ez dugun zerbait gordetzen dute. Pertsonalki, nahiago nuke ezkerre banintz; horrela, segurasi, eskuin-ezkerre izango nintzen. Urte asko daramazkit, nire ezker eskuari, ebajuntza kirurgikoetan, zauria josten edo korapiloak egiten ikasi dezan ahaleginak egiten; baina oraindik ez dut azterketa gainditu.

BERRI ONA ARTZALLUZ'TAR JOXEMARI

Ikastea mesedegarria da

«Espiritu Santuak erakutsiko dizue» (Jn. 14,23-29)

URTE batzuk badaramatzat ia igandero egunkari onetan ebanjelioa oinarri artu eta nere burutazioak irakurlearen onerako (nik ala uste beintzat) idazten ditudala. Eskertzekoa da orrelako aukera izatea.

Ebanjelioa aberatsa denez gai ugari ikutu ditut, unean uneko eta garaian garaiko pentsamentuak sortarazten baitizkio Jaunaren Itza benetan eta egiaz ausnartzeraz ausartzen denari. Ilñoiz ez dut ikutu, ordea, zeatz-meatz, eziera iraunkorra. Eta gaurkoan Joan'en ebanjelioak ortara bultzatu nau.

Eziera iraunkorra guztiz garrantzitsua da kristau bizitzan bere osotasunean bete nai baldin bada. Bibliari buruz, elizan egiten dugunari buruz, fedeari buruz... adituak ez dut erraten, baiña jakitunak izan bear gurekela, zailtzarik ez dut egiten.

Tamalez eta zoritxarrez ez dira pertsona anitz-talde bakan batzuk kenduta benetako kristau eziera egiten dutenak gure parrokietan. Eta errua ez dut inoren bizkarrean jarri nai.

Kristau asko dira -ia denak- betiko gauzatxoekin konformatzen direnak -eta zailtzarik ez dut egiten borondate onenarekin bizi direla-. Zergatik konformatzen da kristaua ain gutxi jakitearekin?

Ez da errez ulertzen gauza batzutan buru argi eta jakintsuak izan eta elizari dagokionean tutik edo ezer gutxi jakitea. Gure lan profesionalean gauzak zeatz eta zuzen egiten oituen izanik nola gera ain zabarrak eta utziak elizako gora-beera guztietan?

Liturgia bera ulertzen ez denean meztatik asi eta eguneroko otoitzeraño aspergarria gertatzea ez da batere arriztekoa. Bibliari buruz ezer ez dakigunean... nola ulertu igandean entzuten dugun itza? Gazte anitzek diotenean -eta adiñeko ugari erraten atrebizten ez dira- meza eta apezak erraten duena beti gauza bera dela, arrazoi osoa dutela derizkiot.

Orain ogei urte ikasitako teologia apez guztientzat zaarkitua gelditu baldin bada, beraz, apezari gaurkotua izatea eskatzen badiogu... zergatik ez diogu bertze orrenbertze eskatzen geure buruari? Zergatik ez dugu kristau elkarteideekin bat egin eta geure burua jaxten saiatzen?

Geure buruari eskatzen ez dioguna ezin eskatu urkoari. Argi eta erne bizi bear dugu Espirituaren gogoa zein den jakiteko; Espiritua emana izan zaigu, egia da, baiña ez tuntuak izateko, ez da ere geure gogoz motzak izateko. Espiritu Santuak erakutsiko digu, bai, baiña utzi ezaiozu Ark lan egin dezan.

Garai bateko karlistek eta euskalerriko lege zarra

LATIEGI'TAR BIXENTE.

Xao (gure idazkeraz Txao), Zubero'ko semea, idazle ospetsua izen zitzagun, Frantzi'ko iraultzalarien ekintzetan kotzeraiño sartua. Berea izen zen Zubero'ko lenen illeta zibilla.

Ba, Xao dugula uste't, onako au idatzi zuena: Karlos erregearen agindu baten aurka jeikiz au esan omen zion ba Zumalakarregi'k errege arri: «Ni ez naiz Erregearen jenerala, ni, Araba, Gipuzkoa eta Bizkai'ko Batzar Nagusien eta Nafarroa'ko Kortearen esanera nagoen jenerala naiz». Polita, baiña siniste sendorik merezi ez duen esaria: Xao, erromantiko ameslari aundia zelako ez bait da uste on geiegarik merezi dun idazlea.

Alare, ederki adierazten digu Xao'ren esakizun orrek gudari karlisten gogabidea. Mutilaiek, millaka, ez ziren ba, ez orixe!, errege batengatik gudara sartu. Erregea, au izen edo beste ori izen, euskaldunei ez zitzairen sekulan garrantzi aundiko gauza iduritu, ondo bait zekiten, lege zarra'ren araura, erregeak ez baiña batzar orokorrak zirela Euskalerrian agintzen zutenak.

Ain zuzen agintaritzat ori euskaldunen eskuetan jartzen zun lege zarra galtzeko arriskuak zeuzkan euskaldunak, Kadiz'ko konstituzioaz gero, arras bildurturik, eta bildur orrek eraginda sartu ziren gudara, baiñan —esan dezadan berrir— ez errege onen alde, erregeiñ orren aurka, lege zarra'ren alde baizik.

V Karlos'en alde, bai noski. Baiña onen eskuetan lege zarra'ren iraunpena seguroago ikusten zutelako. Ori, Isabel Erregiñaren eskuetan ziurrago ikusi ba'zuten, onen alde jeikiko bait ziren.

Argi ikusi daiteke gauza, Maroto'k eta Espartero'k besarkada ustel baten bidez Bergara'n karlisten aurreneko gudari amaiera zikiñ ura ematerakoan gudari karlistek erabili zuten jardunkeran.

An zeuden, Bergara'n, bi gudarozteak, aurrez-urre. Errez etorri ziren batera lege zarra'ren etsaia zen Espartero ta lege zarra'z ajolik ez zitzaion Maroto. Gudari karlistak barretzea zuten eginkizun zaila. Ikusi ere ikusi baii ziteken gudari aien ezpañetatan galde kezagarria: «Ta... Fueroak? Bai, baiña Fueroa? Ta, Fueroetaz zer?»...

Aurretik ere, lege zarra izen zen Maroto ta Espartero'ren arteko alkarriketan korapillorik gogorrena. Ikusten zuten ba lege zarra'ren jarraipena ziurtzeke karlistek ez zirela errendituko. Ikusten zun ori Wilde koronel ingelesak ere. Pakearen giltza lege zarra zela idatzi bait zion Lord Palmerston Ingalanderriko Jaurlaritzaren lendakariari.

Korapilloa askatzeko, erabaki au aurkeztu zuan Espartero'k: «lege zarra onartua izengo da, baiña «siempre que sea conciliable con las instituciones y leyes de la nación». Ori izenpetzeko prest zegoen Maroto.

Berdin Torre, Bizkaitarren jenerala. Baiña, oni, aurka irten zitzaizkion bere gudariak. Urbistondo ta Iturbe jeneralak, berriz, asarre jarri ziren erabaki arren aurka.

Gauzak orrela zeuden Agostuaren 31'ean bi gudarozteak bata bestearen aurrean agertu zirenean. Izen zen tiroka asiko ote zirelaren arriskua. Orduan zutitu zen zaldi-gaiñean, ezpata jaso, Espartero, bere gezurrezko agindua oiukatuz: «nere ezpata au izengo da lege zarra'ren alde zorrotik aurrea irtingo dena».